

AZTERNETen sartzeko jarraibideak

ITSASONTZIEN JOKOA ERABILITA

Ordenagailuan, txartel-irakurgailurik ez baduzu, edo telefonoan zein tabletetan kontsultak egiteko, *itsasontzien jokoa* erabili beharko duzu. Horretarako ez da beharrezkoa izango softwarerik deskargatzea.

Zuzen-zuzenean jo ezazu IVAPeko web orrira (<http://www.ivap.euskadi.eus>), eta klikatu AZTERNETen (web orriaren behe-behealdean):



Hurrengo pantaila hau agertuko zaizu:



Eskumako laukian hurrengo informazio hau sartu beharko duzu:

1. **Erreferentzia-zenbakia** , txartelaren goialdean agertzen da, txiparen gainean, batzuetan lehenengoa hizki bat izaten da, ez zenbakia. **B@kQ** baduzu, zure **NAN zenbakia** sartu beharko duzu.



2. *Itsasontzien joko*a erabiltzeko **pasahitza** (txartela baduzu, gutunarekin batera jaso zenuen, eta **B@kQ** baduzu, SMS batean):



3. Eta eskatzen zaizkizun **koordinatuak**



Horretarako, txartelaren atzealdean kontsultatu, edo **B@kQ** baduzu, mezu elektronikoz



jaso zenituenak eskuratu, eta hemen aukeratu zenbakiak:



botoiari sakatu, eta pantaila hau agertuko zaizu:



KONTUZ! Ondo irakurri zer jartzen duen!

Izan ere, leiho hori ez ixteko agintzen dizu. Beraz, ez itxi leiho hori, **ikonotu (txikitu), besterik gabe.**

Behin hori eginda, AZTERNET aplikazioaren barruan egongo zara eta zeure NANA eta izen-abizenak agertuko zaizkizu:



Egin klik **ZIURTATZEAK** aukeran eta ondoren **IVAPeko ziurtagiriak** aukeratu. Atal horren barruan behar duzun ziurtagiaren gainean klikatu behar duzu eta **Ziurtagiria ikusi** aukeraren gainean sakatu. Zure ziurtagiria agertuko da pdf formatuan, eta berarekin nahi duzuna egin dezakezu: inprimatu, gorde...
Ziurtagiriak daukan lokaliztzaileari esker, edozein administrazio onartu behar duzu.